

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, POZTEN GAITUZTEN KONPROMISOAK

Lerro hauen bitartez, berriz ere hurbiltzen gara Getxoko herritarrengana ilusioz betetzen gaituen ibilbide berri bati heltzeko, zeinetan giza garapen jasangarriarekiko dugun konpromisoa berretsiko baitugu, emakume eta gizonen arteko berdintasunari erabateko errespetua adieraziz, bai eta aniztasunari, tradizioari eta bizikidetzari ere.

EAJ-PNVko kideoi ilusioz betetzen gaitu ikusteak aurrerapausoak ematen gabiltzala hainbat konpromisotan, hala nola geroz eta hurbilagoa eta eraginkorragoa den administrazioa lortzeko asmoan, geroz eta hobeak diren zerbitzuak eskainiz. Bizikidetzara, tradizioa eta aniztasuna jorratzeko lanetan murgilduta jarraitzen dugu, gizartea eta kultura aberasteko faktore diren aldetik. Izan ere, gure kultur ondareak eskaintzen digun oinarri sendotik abia-



tuta, sormeneko abangoardiaren nahiz kultura berritzailearen aldeko apustua egin dezakegu eta,aldi berean, gure tradizioak eta gure altxorra den euskara bizirik mantendu.

Kirolaren hiri gisa mantendu nahi dugu Getxo, Fadura Kirol Parke Berria erreferente gorenari izanik eta Getxo

Kirolak oinarrituko kirolaren esparruan etengabeko lana eginez. Halaber, aipatzekoa da kalean dagoen merkataritza-plaza garelara, inguruko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak onena biltzen duena eta oso konpromiso argiak dituen. Gauza bera esan behar da kalitate goreneko enpresa-jarduera balorizatzeko EAJ-PNVren proiektuari

dagokionez. Martiturrako etorkizuneko parkea edo, beste eremu batean, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna nabarmendu behar dira; izan ere, udal-erri aitzindaria izan gara eta oraindik ere eredu gara hurbileko herri askoren tzentrat, baita hurbil ez daudenentzat ere.

Natura-ingurunea errespetatzeko konpromiso argia dugu, eta horrek barne hartzen ditu berdeguneak, ingurumeneko isurien murrizketa, hondakinen tratamendua eta birziklapena.

Etxebizitzak, bereziki gazteenei zuzendutakoak, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera egiten ari garen belau-naldi arteko zentroa dira legegintzaldi honetako erronkarik handienak. Arduratzen gaituzten bi kontu dira eta Getxoko nahiz getxoxtarren beharrezan nabarmenei erantzunon diete.



## LURPEKO APARKALEKUA ALGORTAKO EPAITEGIEN INGURUAN

Udaren ostean lanera itzuli gara eta agerian geratu da berriz ere Algortako epaitegien inguruan dagoen aparkaleku-falta.

Gainera, aintzat hartzen baditugu inguruko herritarren ibilgailuek hartzen dituzten lekuak, argi eta garbi geratzen da ez dagoela aparkaleku nahikorik.

Hori guztia dela eta, alderdi honen lehentasunetako bat da gune horretan dagoen 106 plazako lurgaineko aparkalekua 320 plazako lurpeko aparkaleku bihurtzea. Proposatzen dugu lurpeko

lau solairu eraikitzea eta horietako bakoitzean 80 partzela egotea. Lurpeko lau solairu horietan egoiliarrentzako alokairu-aparkalekuak izango genituzke, bai eta txandakako aparkalekuak ere udaletxera, epaitegietara edo aldundira doazen guztientzat.

Horiek horrela, gure lurpeko aparkalekuarekin, 4.000 m<sup>2</sup>-ko berdegune izugarria lortuko genuke, inguruko herritar guztiok erabili eta gozatzeko. Alabaina, Zoritzarrez, gainerako alderdi politikoek EZ dute proposamen hori babesten.



## HELBURUA: ALOKAIUAREN PREZIOAK MUGATZEA

Iraileko osoko bilkuran EH Bildutik mozioa aurkeztu genuen txosten bat eskatuz, Getxoko auzo batzuk tentsio handiko gune modura izendatzeko aukera dagoen aztertze, Etxebizitza Lege berrian oinarrituz. Horrela, alokairuaren prezioak mugatzeko lehengo urratsak eman ahalko genituzke, kontuan hartuta gure herrian Euskal Herriko preziorik garestienetakoak ditugula. Pozten gara gure proposamena onartu zelako (PP bakarrik geratu zen akordiotik kanpo) eta espero dugu aurrerago akordioak lortzeko aukera izatea, kontuan hartuta Getxon etxebi-



zitzarekin dugun arazo larria. Berebizikoa da neurriak hartzea lehenbailehen, espekulazio eta eraikuntza masibotik kanpo.

EH Bildutik horretan jarraituko dugu legegintzaldi berri honetan ere, etxebizitza eskubidea gauzatzeko asmoz, modu integratuean: udal jabetzako alokairu sozialari erabateko lehentasuna eman, hutsik dauden etxebizitza hutsak mobilizatu (900 baino gehiago), pisu turistikoak mugatu, kuartelaren lurrak herriarentzat berreskuratu... [getxo.ehbildu.eus](http://getxo.ehbildu.eus)



## KONPROMISOA GETXOREKIN

Ilusioz beterik hasi dugu ikasturte hau, baina baita erantzukizun handiekin ere. 2023-2027ko agintaldian, gure bozeramaile Carmen Díaz da berriro ere Gizarte Kohesioko Arloaren burua. Gainera, Ekonomia Sustapenaren kudeaketaz arduratuko da Juanma González, eta Mihaela Jilavuk Gazteria, Hezkuntza eta Kulturartekotasun Arloa kudeatuko du. Erronka honek dakar konpromiso gardena izatea getxoxtarrek; hori dela eta, zure zalantzak eta iradokizunak jasotzeko zain geratzen gara. Zure iritzia garrantzitsua da Getxorako politika hobeak diseinatzeko. 944 66 02 89 [psoe@getxo.eus](mailto:psoe@getxo.eus).



Getxon bizitzea ezinezkoa da familia askorentzat. Erosketa-prezio neurrigabekoen eta alokairu-prezio ikaragarri garestien ondorioz, jende asko joan behar izaten da kanpora edo hilabete-amaieran fakturak ordaindu ezinik geratzen da. Irailean onartu zen proposatutako lehengo neurria, jendeak bere diru-sarreraren %30 baino gehiago etxebizitzara bideratu behar ez dezan: Getxon tentsio handiko eremuak deklaratzeko.



## ETXEBIZITZAREN ALDE